

**AP-1.HE / 1. eredua**

- 1.- *Gaur goizean azokan erosi dudan gazta ..... emango diot.*
- a) anaiarentzat
  - b) anaiarengana
  - c) anaiari
  - d) anaiarekin
- 2.- *Txekean zenbaki hau jarri behar duzu: 26.755.*
- a) Hogeita hamasei mila zazpiehun eta berrogeita bost.
  - b) Hogeita sei mila zazpiehun eta berrogeita hamabost.
  - c) Hogeita hamasei mila zazpiehun eta hirurogeita bost.
  - d) Hogeita sei mila zazpiehun eta hogeita hamabost.
- 3.- *Zein da ahoan EZ dagoena?*
- a) Mihia.
  - b) Hortzak.
  - c) Ukondoa.
  - d) Ezpainak.
- 4.- *Amonak pastelak iganderako nahi ditu. Zer galdetu behar da horrela erantzuteko?*
- a) Noiz arte nahi ditu amonak pastelak?
  - b) Noizko nahi ditu amonak pastelak?
  - c) Nongoak nahi ditu amonak pastelak?
  - d) Nolakoak nahi ditu amonak pastelak?
- 5.- *Tabernariak botila ekarri du, baina barruan ez dago ezer. Nola dago?*
- a) Beteta.
  - b) Zutik.
  - c) Argal.
  - d) Hutsik.
- 6.- *Zer moduz dabil Maite? Eman goraintziak ikusten duzunean.*
- a) Bai, zure partetik.
  - b) Baita zuri ere.
  - c) Eskerrik asko.
  - d) Aupa, aspaldiko.

- 7.- *El ciclista cree que va a ganar la carrera.*
- a) Txirrindulariak lasterketa irabaziko duela uste du.
  - b) Txirrindulariak lasterketa irabaziko duelako uste du.
  - c) Txirrindulariak lasterketa irabaziko badu uste du.
  - d) Txirrindulariak lasterketa irabaziko duen uste du.
- 8.- *Gure seme-alabek ez dute Donostiako jaietara ..... baimenik.*
- a) joatera
  - b) joateko
  - c) joatetik
  - d) joaterako
- 9.- *Aitak ez du ondo ikusten, eta ..... behar ditu.*
- a) belarritakoak
  - b) galtzerdiak
  - c) eskularruak
  - d) betaurrekoak
- 10.- Aukera ezazu erantzun egokia: *Badaukazu zigarrorik?*
- a) Bai, daukat.
  - b) Ez, ez dut zigarroak.
  - c) Bai, badaukat.
  - d) Ez ditut ezer.
- 11.- *Idazkariak eskolako arduradunei deitu ..... bulegotik.*
- a) dio
  - b) dute
  - c) dituzte
  - d) die
- 12.- Orain ordu biak eta berrogeita hamar minutu badira, zer ordu izango da hemendik hamar minutura?
- a) Laurak.
  - b) Hirurak eta laurden.
  - c) Hirurak.
  - d) Hirurak hamar gutxiago.

13.- *Ordenagailu hau ez dabil ondo. Nork ..... konpontzen?*

- a) dabil
- b) dio
- c) daki
- d) dago

14.- *Nire amonaren semea nire aitaren anaia da. Zer da nirea?*

- a) Izeba.
- b) Lehengusua.
- c) Anaia.
- d) Osaba.

15.- *Ohera sartu naizenean, liburua .....*

- a) irakurtzen ari naiz.
- b) irakurriko dut.
- c) irakurtzen dut.
- d) irakurri dut.

16.- *Lanera joan gabe ezin du ..... dirurik irabazi.*

- a) norbait
- b) inor
- c) inork
- d) zerbaiti

17.- *Herenegun asteazkena izan zen. Zer da gaur?*

- a) Larunbata.
- b) Ostirala.
- c) Astelehena.
- d) Asteartea.

18.- *Gure etxe azpian istripua gertatu da, eta zaurituak anbulantzian ..... ospitalera.*

- a) dabilta
- b) dakarte
- c) dakite
- d) daramatzate

19.- *Maitane tiene tanta ropa como su amiga.*

- a) Maitanek bere lagunak baino arropa gehiago dauka.
- b) Maitanek bere lagunak bezalako arropak dauzka.
- c) Maitanek bere lagunak adina arropa dauka.
- d) Maitanek eta bere lagunak arropa berdina dauzkate.

20.- *Izbek Olentzaro eguna baino bi hilabete lehenago erosi zituen opariak. Noiz erosi zituen opariak?*

- a) Urrian.
- b) Otsailean.
- c) Azaroan.
- d) Irailean.

21.- *Gaur goizean idazleek ..... hitzaldian jende asko egon da.*

- a) ematen
- b) emandako
- c) emateko
- d) ematera

22.- ..... eguzkia hartuko duzu.

- a) Udan zerua hodeitsu badago,
- b) Oporretan berriak jakin nahi badituzu,
- c) Aste Santurako ilea hazten bazaizu,
- d) Kostaldera joateko aukera baduzu,

23.- *Erosi duzun liburuak orri gutxi dauzka. Nolakoa da?*

- a) Zabala.
- b) Mehea.
- c) Luzea.
- d) Epela.

24.- *Umeak ginenean aita etortzen ..... eskolara bila.*

- a) zitzaigun
- b) zigun
- c) ziguten
- d) zitzaizkigun

25.- *Autobusa hartu behar dut Amurrora .....*

- a) joatetik.
- b) joateko.
- c) joatera.
- d) joaten.

26.- Aukera ezazu erantzun egokia. «Aizu Martin, hau nire semea da».

- a) Eskerrak!
- b) Eman goraintziak!
- c) Baita zuri ere!
- d) Kaixo! Zer moduz?

27.- *Telefonoz deitu genizunean ez ..... nortzuk ginen.*

- a) zenekien
- b) zeneukan
- c) zeneraman
- d) zenekarren

28.- *Enpresariak eskaintzen dituzten lan batzuk ez dira .....*

- a) edonorekin.
- b) edonori.
- c) edonorentzat.
- d) edonoren.

29.- Eman segida hitz zerrenda honi: postaria, udaltzaina, apaiza, .....

- a) nekazaria.
- b) azeria.
- c) burdina.
- d) ozpina.

30.- *Gure logelako ..... udaletxea ikusten da.*

- a) leihora
- b) leihoaren
- c) leihotik
- d) leihoarengan

31.- Txakurrak lapurrei zaunka egingo ....., ez lirateke lapurtzera sartuko.

- a) balie
- b) badiote
- c) balute
- d) baliete

32.- Gaur hartu dugun kafea atzokoa baino ..... da.

- a) hoberena
- b) onena
- c) hobeto
- d) hobe

33.- Amaia ez ezik, Susana eta Itziar ere joango dira dantzaldira.  
Aukera ezazu PAREKOA.

- a) Amaia ez bada, Susana eta Itziar joango dira dantzaldira.
- b) Amaia, Susana eta Itziar joango dira dantzaldira.
- c) Amaiak nahi badu, Susana eta Itziar joango dira dantzaldira.
- d) Amaiarekin ez bada, Susana eta Itziar ez dira joango dantzaldira.

34.- Soroetan patata ..... lan gogorra da baserritarrentzat.

- a) bildu
- b) biltzeak
- c) biltzea
- d) biltzen

35.- Haurrak izugarritzko kolpea hartu du. ...., ez du negarrik egin.

- a) Berrito
- b) Besterik
- c) Baizik
- d) Hala ere

36.- Geltokian ikusi dudan gizontzarrak agurtu egin nau. Aukera ezazu PAREKOA.

- a) Geltokian ikusi dudan gizon arraroak agurtu egin nau.
- b) Geltokian ikusi dudan gizon handiak agurtu egin nau.
- c) Geltokian ikusi dudan gizon zaharrak agurtu egin nau.
- e) Geltokian ikusi dudan gizon txikiak agurtu egin nau.

37.- *Gasteizen bizi zinela ..... dut beti.*

- a) uste izan
- b) ari izan
- c) behar izan
- d) balio izan

38.- *Legutioko festetatik berandu .....*

- a) etortzerako behar dugu.
- b) etortzera erabaki dugu.
- c) etortzetik uste dugu.
- d) etortzeko asmoa dugu.

39.- *Gure lagunei telefono zenbakia emango ....., egunero deika ibiliko .....*

- a) baligute / lirateke.
- b) bagenizkie / genituzke.
- c) bagenie / lirateke.
- d) baligute / ginateke.

40.- *Hoteleko zuzendariak gauez isilik egoteko ..... zigun.*

- a) kezkatu
- b) agindu
- c) iruditu
- d) elkartu

41.- *Jon eta Ane beti daude gelan ..... ondoan eserita.*

- a) elkarren
- b) elkarrengana
- c) elkarri
- d) elkar

42.- *Azukre eta koipe asko jatea oso ..... da osasunerako.*

- a) aspergarria
- b) nekagarria
- c) kaltegarria
- d) izugarria

43.- *Zure jaka jantziko banu, ez ..... ondo geratuko.*

- a) litzaidake
- b) zitzaidan
- c) litzaizuke
- d) litezke

44.- *Entrad en los coches de cuatro en cuatro.*

- a) Sar zaitezte launaka autoetara.
- b) Sar zaitezte lautan autoetara.
- c) Sar zaitezte laurekin autoetara.
- d) Sar zaitezte lau autoetara.

45.- *Gazte eta zaharrok, ikasi ..... zaintzen!*

- a) zeuen buruari
- b) zeuen burutan
- c) zeuen buruan
- e) zeuen burua

## AP-1.HE / 1. eredua

### ERANTZUN ZUZENEN ORRIA

1.	C	2.	B	3.	C	4.	B	5.	D
6.	A	7.	A	8.	B	9.	D	10.	C
11.	D	12.	C	13.	C	14.	D	15.	D
16.	C	17.	B	18.	D	19.	C	20.	A
21.	B	22.	D	23.	B	24.	A	25.	B
26.	D	27.	A	28.	C	29.	A	30.	C
31.	A	32.	D	33.	B	34.	C	35.	D
36.	B	37.	A	38.	D	39.	C	40.	B
41.	A	42.	C	43.	A	44.	A	45.	D